



EUSKARA OFIZIALA NAFARROA OSOAN, BEHINGOZ

2018/10/27

Paul Bilbao, azken hitzartzea

Gaur, beste behin erakutsi dugu haizea aldeko zein kontrako dugula ere, eguzkipean zein euripean euskaraz bizitzeko nahia berdin-berdina dela. Euskaraz bizitzeko nahiak ez du eguraldia baldintzatzen, eta logika berdinari jarraituz, euskaraz bizitzeko eskubidearen aitortza ere ez luke eguraldiak baldintzatu behar. Hau da, ez luke logikarik izanen eguraldiaren arabera aitortzea herritarrei euskaraz bizitzeko eskubidea. Alegia, eguraldi ona egiten duenean aitortuko dizkizuegu eskubideak, euria egiten duenean ez, eta lainotsu dagoenean eskubidea batzuk bai eta beste batzuk ez.

Hartara, logika-eza hori berori da gaur egun Nafarroan euskaldunon eskubideak aitortzeko dagoena. Herri horretan euskaldun gutxiago dagoenez ez zaizue eskubiderik aitortuko, bestean euskaldun gehiago dagoenez eskubide batzuk baina ez guztiak... Benetan, inork pentsa dezake eskubideak horrela onar daitezkeenik? Tira ulergaitz eta ulertezin.

Gaurko hitzartzea eskerrak emateko baliatu nahiko nuke. Mobilizazio hau iragarri genuenean, egia da bai, Kontseilua eta gure erakundea osatzen duten eragileok egin genuela deialdia. Jarraian batu zitzaizkigun euskararen, euskal kulturaren, euskarazko hedabideen, euskal hezkuntzaren eremuan dabiltzan bestelako eragileak. Handik gutxira euskal gehiengo sindikalak ere, bere egin zuen aldarrikapena ...

Eta azken egunotan hamarnaka eragile ere lotu zaizkio ofizialtasunaren aldarriari: eragile feministak, gazte-mugimendua, ekologistak, eragile sozialak, gay eta lesbianen elkarateak, kirol-elkarateak eta abar...

Aniztasun horrek erakusten du hau ez dela soil-soilik euskararen edo euskaldunon afera. Horrek erakusten du gaurko mobilizazioa ez dela soil-soilik euskararen aldeko mobilizazioa. Kontua da hemen, aurreko lagunek esan bezala, justizia, kohesioa eta berdintasuna ditugula jokoan. Kontua da hemen ezin dela bizikidetza ardatz izango duen gizartea eraiki milaka herritar eskubidez gabeturik ditugun bitartean. Kontua da BEHINGOZ herritar guztiak eskubide berdinak aitortuko dizkien lege berria behar dugula, eta egun, horretarako aukera juridiko bakarra OFIZIALTASUNA dela. Ondorioz, eragile horien guztien aldarriari muzin egitea izango da, beraz, ofizialtasuna Nafarroa osora zabalduko duen lege bat ez onartzea.

Eta hamarnaka eragile horiez harago Nafarroako euskaldun eta euskaltzaleei ere eskerrak eman behar zaizkie, geure buruari eskerrak eman behar dizkiogu. Hunkigarria izan da azken egunotan sareetan ofizialtasuna aldarrikatuz eseki diren argazki eta bideo guztiak; herrietan egin diren ekimen eta deialdi guztiak. Finean, hori izan da geure helburu nagusietako bat: Ofizialtasunari aurpegiak jarri nahi izan dizkiogu, eta lortu egin dugu. Zorionak.

Zalantzarik gabe, hunkidura gehien sortu duten irudiak Nafarroako hegoaldeetik iritsitakoak izan dira, hain zuzen ere, egungo araudiak herritar horiei eskubideak aitortu ez arren, harrotasunez agertu dute ofizialtasunaren aldarria. Are gehiago, irudi horiek ikusita, duela aste batzuk hor aurreko eraikin horretan ofizialtasunaren mamua zabaltzen ari diren horiei egindako galdera etorri zitzaidan burura: Zein arazo duzue, zein oztopo duzue nafar guztiak eskubide berdinak aitortzeko? Erantzunik ez nuen jaso. Eta, bai, hurrengoan geure



etorkizuna baldintzatzen duten legeak onartzen dituen etxe horretara joaten naizenean eskaera bat egingo diet: Zoazte euskara ofiziala ez den eremuetara eta esaiezue euskaraz bizi nahi duten herritarrei eskubide hori ez diezuela aitortuko. Bai... Zuek ez diezuela aitortuko esan beharko diezue, hori baita egia. Ofizialtasunari atea ez zabaltzeak hori ekarriko du. Badakigu noren esku dagoen orain herritarrak berdintasunez hartuko dituen legea onartzea. Ausart jokatu, erakutsi aurrekoetatik desberdin jokatzen duzuela. Guk geure lana egin dugu, gehiengo zabal baten eskaera duzue eskuartean. Orain, eraikin horretako ordezkarioi dagokizue erantzukizunez jokatzea.

Berriki, euskararen lege berriaren partida ez dela amaitu zioen euskarazko egunkari nazionaleko kazetari batek. Eta, halaxe da, partida ez dela amaitu berretsi nahi dut hemen. Are gehiago, baloia kentzeko edota zulatzeko gogoz badabiltza ere, guk jokoan jarraituko dugu, geure eskubideak, milaka herritarron eskubideak, jokoan daudelako. Animo eta aurrera. Euskara Ofiziala Nafarroa Osoan, Behingoz!!!

Iruñean, 2018ko urriaren 27an